

perretxiko bila



barrenet 15. ikastunitatea

2. maila

irakaslearena

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna:	Juxto Egaña (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak:	Begoña Martinez (HABEko teknikaria) Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Parte-hartzailea:	Jone Aboitiz (AEK)
Errealizazio didaktikoa:	Xabier Elortza (HABEko teknikaria) Alex Mungia (HABEko teknikaria) Agurtzane Maiz (HABEko teknikaria)

(c) HABE 2003.

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeari (AEK) materialgintza-proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Iñaki Gozalo, Igor Astigarraga eta Josetxo Sastre.**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

- **Arrieta, I.** *Trufa: urre beltza*. Euskaldunon Egunkaria. 2000-11-22.
- **Gonzalez, E.** *Bilketa segurua eta eraginkorra*. Euskaldunon Egunkaria. 2000-10-13
- **Olariaga, I.** Perretxikozalea. ETBko elkarrizketa
- **Imaz, E.** Elhuyarreko kidea. ETBko elkarrizketa
- **Iñurrategi, F.** ETBko elkarrizketa

AURKIBIDEA:

1. SARRERA

1. Irakaslearentzako oharrak3
 2. Ikastunitatearen ibilbidea4
 3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak5

2. ATAZAK

A MULTZOA:

- 1. Ataza:** Otzara hartu eta.....6

B MULTZOA:

- 2. Ataza:** Basoetako altxor preziatuak8
3. Ataza: Basoan zer topatuko eta.....11

C MULTZOA:

- 4. Ataza:** Perretxikoak jan eta.....14

D MULTZOA:

- 5. Ataza:** Perretxikozalearen janzkera16
6. Ataza: Perretxiko-biltze segurua eta eraginkorra18

3. ERANSKINAK

- I. Ikaslearen autoebaluazio-orria20
 II. Bideo-pasartea. Ibai Olariagaren jarduna22
 III. "Trufa: urre beltza" erreportaje idatzia23
 IV. 2. Bideo-pasartea. Eneko Imazi elkarrizketa25
 V. 3. Bideo-pasartea. Perretxikoen argazkiak28
 VI. Perretxiko jangarri bakoitzaren deskripzioa eta eskema osatuta30
 VII. 4. Bideo-pasartea. Perretxikoen argazkiak eta izenak36
 VIII. 5. Bideo-pasartea. Felix Iñurategiren pasadizoa38
 IX. Felix Iñurategiren pasadizoaren aldagaiak39
 X. Perretxikozalearen jantzi eta tresnen irudiak40
 XI. "Perretxiko-biltze segurua eta eraginkorra" testua43

BIDEO-PASARTEAK

1. ataza	2. ataza	3. ataza	4. ataza
1. b-p: 1.05.57	2. b-p: 1.07.48	3. b-p: 1.17.02	5. b-p: 1.18.35
		4. b-p: 1.17.47	

1. SARRERA

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Perretxikoen mundura hurbilduko gara ikastunitate honetan. Hurbildu diogu, gure asmoa ez baita izan perretxikoen inguruko gida-liburu sakon bat egitea, perretxikozaleek perretxikoak biltzen hain gogo handiz zergatik jarduten duten ulertaraztea baino, eta bide batez basoan aurki ditzakegun ezustekoez hitz egitea.

Ikastunitateak lau ataza multzo ditu. Lehenengoa, A ataza multzoa, ikastunitatearen aurkezpena bideratzeko eta gaia pixka bat ezagutzeko da. Egia da denok ez dugula ikusiko modu berean perretxikoen mundua, eta jende askorentzat ulergaitza ere izan daitekeela. Ataza honetan, perretxikozale batek bere zaletasuna nondik datorkion azalduko digu, zer den berarentzat perretxikotara joatea.

B ataza multzoan, perretxikotara joaten garenean oso ezuste onak aurki ditzakegula jakingo dugu, besteak beste, trufak ere basoetan egoten baitira, guk bildu zain.


C ataza multzoan, berriz, basoetan perretxiko pozoitsurik ere badagoela ikusiko dugu, eta horietakoren bat ezagutuko dugu.

Azkenik, D ataza multzoan, aurreko atazetan ezagutu duguna kontuan hartuta, perretxikotara joatea erabakiz gero, zer egin behar dugun jakingo dugu. Nola jantzi behar dugu perretxikozale itxura izateko? Zer eraman behar dugu mendira? Zein da mendian izan behar dugun jarrera?... Gai honen inguruan hitz egiteko aukera izango dugu.

Murgil gaitezen bada, perretxikoen mundu zabalean, eta jakin dezagun zeintzuk diren mundu horrek ezkututzen dizkigun altxor zein arriskuak. Eta, batez ere, izan gaitezen arduratsu eta joka dezagun errespetuz gure ingurunearekin.

DESKRIPZIOAK	· Perretxikoez zertxobait jakin nahi badugu, oso garrantzitsua da euren ezaugarriei erreparatzea, ezaugarriok zeintzuk diren ondo jakinda, perretxiko pozoitsuak eta jangarriak nahasteko aukera gutxiago izango baitugu. Ezinbestekoa izango da, beraz, perretxikoen kolorea, neurria, txapelaren forma eta abarrekoak deskribatzeko baliabideak ezagutzea.
AHOLKUAK	· Mundu honetan urratsak eman nahi baditugu, beharrezko egingo zaigu adituen eskutik etorriko zaizkigun aholkuak entzutea, eta dakigun guztia gure ingurukoei horren berri ematea. Aholkuek, hortaz, bere lekutxoak izango dute ikastunitate honetan.
PASADIZOAK	· Jakin badakigu perretxiko guztiak ez direla onak, eta hilgarriak izan daitezkeenak ere topa ditzakegula gure basoetan. Pozoidura ugari gertatu ohi da perretxiko-mota batzuk jateagatik, eta pozoitutako batek kontatutako pasadizoren bat ere esku artean izango dugu atazaren batean.
ERREPORTAJE TEKNIKOAK	· Askotan ikusi ditugu perretxikoen inguruko liburu, bideo zein fitzak, eta konturatu gara hitz arraro eta teknikoak beteta daudela gehienak. Ikastunitate honetan ere horrelako bideo eta erreportaje idatzi batzuk izango ditugu esku artean, eta interesatzen ez zaizkigun hitzak albo batean utzita, guretzat garrantzitsua den informazioa ateratzen jakin beharko dugu.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA



3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

LEXIKOA

- Pozoidurei buruz hitz egiterakoan erabiltzen diren aditzak ikasi (4)
- Perretxiko ezagunen izenak ikasi

MINTZAGAIAK

- Perretxikozalea izateko arrazoiak (1)
- Perretxiko bitxi eta onenak (2, 3)
- Perretxiko pozoitsuak (4)
- Perretxiko pozoitsuak janda gertatutako pasadizoak (4)
- Perretxikozalearen janzkera, ekipoa eta jarrera (5)
- Perretxikoak biltzeko modurik seguruena eta eraginkorrena (6)

ELKARRERAGINA

- Elkarreraginean, zertaz hitz egingo den asmatu (1)
- Gaiari buruzko datu bitxiez hitz egin, arrazoiak eman (2)
- Deskripzioak ahoz azaldu (3)
- Gaiari buruzko azalpenak ahoz eman (4)
- Pasadizo bat ahoz kontatu (4)
- Lagun bati zaletasun bati buruzko aholkuak ahoz eman (5)
- Batak besteari informazioa eskatu eta eman (6)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Zaletasun bati buruzko arrazoiak entzun eta ideia nagusiak jaso (1)
- Irakurri / entzungo dutenaren inguruko aurrezagutza baliatu (2)
- Idatzizko erreportaje teknikoetan datu nagusiak ulertu (2)
- Usteak eta arrazoiak ahoz azaldu (3)
- Idatzizko deskripzioak zehaztasunez ulertu (3)
- Irratian entzundako pasadizo bat zehatz-mehatz ulertu (4)
- Entzundakoa / irakurritakoa norbere eskarmentuarekin lotu (1, 4, 6)
- Gaiari buruzko dekalogoak idatzi (6)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Azalpenaren garapenerako loturak landu (2)
- Kolore-ñabardurak adierazteko -xka atzizkia landu (3)
- Aditzaren aspektua landu (4)
- Aholkuak eta arrazoiak emateko esapideak landu (5)
- Ezezo esaldietako ordena landu (6)

EUSKAL KULTURA / GIZARTEA

- Euskal Herrian perretxiko zaletasun handia dagoela jakin, eta horren arrazoiak ulertu

2. ATAZAK

1. ataza: Otzara hartu eta...

40'

Helburuak:

- Elkarreaginean, zertaz hitz egingo den asmatzea.
- Zaletasun bati buruzko arrazoiak eta iritziak entzun eta ideia nagusiak jasotzea.
- Gaiarekiko interesa piztea.

Zertan den:

Perretxiko bila ibiltzea Euskal Herrian nahiko hedatua dagoen ohitura izanda ere, ez dugu guztiok modu berean ikusten. Batzuk irrikaz egoten dira, udazkena noiz helduko, mendira joan eta saski bete perretxiko etxeratzeko. Beste batzuek, dendako bandejatxoetan dauden perretxikoak erosi eta jaten dituzte, eta badira beste batzuk, perretxikoak jaten ere ausartzen ez direnak txarrak izango ote diren beldurrez.

Ataza honetan, perretxikoak biltzeko zaletasuna zertan datzan ezagutuko dugu perretxikozale baten eskutik: berak azalduko dizkigu noiz, nola eta zergatik hasi zen eginkizun horretan.

PROZEDURA:

Atazaurrea: esaldi batzuk eman eta gaia zein izango den antzeman. Entzungo dutenaren inguruan hitz egin (10')

- 1. bideo-pasartean entzungo ditugun esaldi batzuk banatuko ditugu ikasleen artean (azpiko laukian daudenak), perretxiko hitza ezabatuta, eta denen artean, zein gaiaz arituko direla uste duten esango dute.

ESALDIAK

Nire _____-kiko zaletasuna aspalditik dator.
Zaletasunaren errudun neurri handi batean nire amaren familiakoak dira.
Nire ama bera, nire osaba, aitona-amonak, denak _____ zaleak ziren.
Amaren familiakoek mendira joateko ere ikaragarritzko afizioa zeukaten.
Nire zaletasuna indartzen joan zen. Denborarekin, _____ mordoska ezagutzen ditut.
Nire zaletasuna mendira joaten osatzen dut.
Nire zaletasuna ez da _____-kiko bakarrik.
_____ -rik ez dagoenean, mendira joatea ere ikaragarri pozgarria da.

- Perretxikozaleak zer kontatzea espero duten esango dute taldeka.

Ataza: bideo-pasartea ikusi eta esandakoa baieztatu (10')

- 1. bideo-pasartea/2. eranskina ikusiko dugu. Ikusi ahala ondoko galderari erantzungo diete:

- Noiztik datorkio zaletasuna?
- Nori esker zaletu zen?
- Ba al du beste zaletasunik?
- Zergatik du hain gustukoa?

- Talde bakoitzak esandakoa bideo-pasartean entzundakoarekin bat datorren begiratuko du.

Feedbacka: taldeka, ondorioak azaldu (10')

- Talde bakoitzak lana nola egin duen azalduko du.

Atazaostea: bakoitzak bere eskarmentua kontatu (10')

- Ikasle bakoitzak bere inguruan perretxikozalerik duen ala ez esan, eta bideoan agertu denarekin zerikusia duen azaldu.

Helburuak:

- Irakurri / entzungo dutenaren inguruko aurrezagutza baliatzea.
- Erreportaje teknikoetan datu nagusiak nahiz zehatzak ulertzea.
- Gaiari buruzko datu bitxiez hitz egitea, arrazoiak emanez.
- Azalpenaren garapenerako loturak lantzea.

Zertan den:

Sukaldaritza munduan trufa izena oso ezaguna da, berau osagai hartuta plater asko prestatzen baitituzte sukaldariek. Baina, gutako askori trufa zer den galdetuta seguru asko gehienok txokolatezko bonboi-mota bat dela erantzungo genuke. Baina trufa txokolatea al da? Ala ba ote du perretxikoen munduarekin zerikusirik, agian? Horretaz guztiaz hitz egingo dugu ataza honetan.

PROZEDURA:

Atazaurrea: erreportajearen sarrera emanda, hitz batzuk kenduta, gaia zein izango den esan. Trufei buruz dakitenaz hitz egin, galdera batzuei erantzunez (15')

- "Trufa: urre beltza" erreportaje idatziaren sarrera banatuko dugu, hitz batzuk kenduta*, eta ikasleek, taldeka jarrita, hitz horiek zeintzuk izan daitezkeen esango dute. Beraz, hutsuneetan falta dena jarri, eta beste taldeei azalduko diete.

IKASLEAREN LIBURUXKAN

Trufa: urre beltza

Trufa hitza entzuten dugunean, gehienoi, txokolate eta gurinaz eginiko bola-formako gozokia datorkigu burura, gainetik kakao-hautsa bota eta gozogintzan oso erabilia dena, hain zuzen ere, baina, berez, ez du batere **trufa** - rik izaten. Nondik datorkio bada **trufa** izena? Basoetan aurkitzen den **trufa** edo boilurraren forma eta itxura bera duelako, beterik gabe. Izan ere, **trufa** izatez, basoetako zenbait onddoren izen arrunta da. Mikorrizak eratuz hazten da zenbait landareren sinbionte modura.

Trufak biltzeko **txerriak** edo txakurrak baliatzen dira. Sukaldaritzan erabiltzen diren onddoetatik preziatuenetakoa da. Espezie preziatuena boilur zuria da.

*Azpimarraturiko hitzak dira ikasleei falta zaizkienak.

- Trufen inguruan dakitenaz hitz egingo dute, taldeka, galdera batzuei erantzunez. Erantzunak idatzi eta bukaeran horietaz hitz egiteko gordeko dituzte. Horretarako lau talde egingo ditugu, eta talde bakoitzari bina galderen ardurua emango. Orduan, taldeek galdera guztiak erantzun beharko dituzte ahal duten moduan, baina egokitu zaizkien bietan ardurua berezia jarriko dute. Bururatzen zaizkien erantzunak arrazoitu egin beharko dituzte.

IKASLEAREN LIBURUXKAN

- | | |
|--|---|
| <ol style="list-style-type: none">1. Zenbat trufa-mota dago? Zeintzuk?2. Zenbat balio dute, gutxi gorabehera?3. Non eros daitezke?4. Onddoen fruitua da normalean jaten duguna. Zein berezitasun daukate trufaren generoko onddoek? | <ol style="list-style-type: none">5. Nola biltzen dira trufak? Zergatik?6. Zein da trufak hazteko klima egokia?7. Euskal Herrian ba al dago trufarik? Egotekotan, non?8. Egin al da trufa lanketarik? (artifizialki eta era kontrolatuan ereiteko saiakeraren bat) Egin bada, nolakoak izan dira emaitzak? |
|--|---|

- Trufei buruzko erreportajea irakurtzen hasi aurretik, bi hitz tekniko argituko ditugu, testuan garrantzi handia izango dutenak. Horretarako, binaka jarriko dira ikasleak; batak MIZELIO hitzaren definizioa irakurriko du, eta besteak MIKORRIZA hitzarena. Ulertutakoa elkarri azaldu ondoren, gainerakoei emango diete berorren berri.

MIZELIOA: onddoen gorputz begetatiboa, gehienetan substratuaren barnean dagoena. Mizelioetatik sortutako gorputz fruitu emaileei perretxiko deritze; zenbaiti onddo ere esaten zaie.

MIKORRIZA: landare baten sustraiak eta onddo baten hifek* eratzen duten elkarte sendoa. Mikorritzaren bidez elikagaiak trukatzeko dituzte. Onddoak sustraiari itsatsita dagoenean, landarea mikorritzatuta dagoela esaten da.

*Hifa: Mizelio begetatiboa osatzen duten harizpi-formako elementuetako bakoitza.

- Mikorritzaren adibideak jartzen saiatuko gara denon artean.

Ataza: erreportaje-zati bana irakurri eta galderen erantzunak egokitu. Lortutako informazioa eman batak besteari. Elkarrizketa entzun eta datu berririk gaineratu daitekeen esan (25')

- Bi talde egingo ditugu: A eta B. A taldekoek erreportajearen lehenengo zatia irakurriko dute, eta B taldekoek bigarrena (3. [eranskina](#)). Talde bakoitzak bere zatian topatuko ditu lehen adierazitako galdera batzuen erantzuna.

- Erantzunak aurkitu ondoren, binaka jarri (talde bakoitzeko bana) eta lortutako informazioa elkarri kontatuko diote, galdetegia osatuz.

Feedbacka: taldeka, ondorioak azaldu. Aurreikuspenen inguruan hitz egin (15')

- 2. bideo-pasartean (4. [eranskina](#)) "Trufa edo boilurra" elkarrizketa entzungo dugu. Bertan, Eneko Imaz Elhuyarreko kideak trufari buruzko hainbat kontu aipatuko dizkigu. Bideo-pasartea entzun eta datu berririk gaineratzen duen esango dute.

- Atazurrean galderen inguruan talde bakoitzak egindako aurreikuspenez arituko gara eta egindako hipotesiak zenbateraino bete diren esango dute. Horretarako, talde bakoitzak bereziki prestaturiko bina galdera horien azalpena egingo dute.

Gramatika eta diskurtsoa: azalpenaren garapenerako loturak landu (15')

- Irakurri duten testutik ateratako hainbat zatitan hutsuneak bete beharko dituzte ikasleek, emango zaizkien formen artean aukeratuz.

IKASLEAREN LIBURUXKAN

HORI DELA ETA
GAINERA
IZAN ERE

BATETIK
BERAZ
EDONOLA ERE

ESATERAKO
DENA DEN
ORDEA

HALA ERE
BESTETIK
HORREGATIK

- Irakurritako testua hartuta, egindakoa zuzenduko dute. Ondoren, beste lotura batzuk topatu eta zatien berridazketa egingo dute.

Atazaostea: daturik harrigarrienez hitz egin (5')

- Bakoitzak berarentzako daturik harrigarriena zein izan den esango du, arrazoiak emanaz. Horretaz hitz egingo dugu.

Helburuak:

- Usteak eta arrazoiak ahoz azaltzea.
- Idatzizko deskripzioak zehaztasunez ulertzea.
- Deskripzioak ahoz azaltzea.
- Kolore-ñabardurak adierazteko -xka atzizkia lantzea.

Zertan den:

Perretxiko bila joaten garenean, ohi baino pozago itzultzen gara etxera, saskian perretxiko jakin batzuk ekarriz gero, batzuk oso preziatuak baitira. Ataza honetan, perretxiko horietariko hiru aukeratu eta beroien deskripzio idatziak eskaintzen ditugu, espezie horiek hobeto ezagutzeko.

PROZEDURA:**Atazaurrea: argazki batzuk zer diren asmatu. Deskripzio-zatiak zein perretxiko / onddori dagozkion esan (15')**

- Demagun, baten batek basotik ekarritako saski bat daukatela lagun batzuek, eta afari bat prestatu behar dutela. Badakigu saski barruan sei perretxiko-/onddo-mota daudela, eta horrez gain, mendira joandakoak lehendik saskian zeukan beste zerbait ere bai. Zazpi ale horien argazkiak dituzte, eta sailkatu egin behar dituzte, haien ustez zer diren esanez. Argazkiak ezagutzeko, 3. bideo-pasartea ikusiko dute. Bestalde, bideoa jartzeko aukerarik ez baduzue, [5. eranskinean](#) dituzue argazkiak. Saskian honako hauek daukate:
 - Hiru perretxiko, oso onak, afaria prestatzeko.
 - Beste hiru perretxiko erakusteko ekarri dituenak, horietariko bi ez dira jangarriak, eta hirugarrena hilgarria da, gainera.
 - Perretxikoa ez den beste zerbait, lehendik saskian zeukana.

ZEIN DA ZEIN?

- Irakurriko dituzten hiru perretxiko jangarrien deskripzioetatik atera ditugun hitz edota esapideak irakurriko dituzte, irudiekin lotzeko.

IKASLEAREN LIBURUXKAN

HANKA LODIA, SABELDU SAMARRA BEHETIK	GAINALDE BILUZIA, GARATXORIK GABEA	TXAPELA HASIERAN ESFERIKOA DA, GERO GUTXI GORABEHERA LAUTUA ETA, AZKENEAN, ERDIALDEA ZAPALDUA
ARRAUTZA GOGORRAREN GORRINGOA GOGORARAZTEN DIGU	HANKA LODIA ETA ZILINDRIKOA	HANKA NAHIKO MOTZA DU, GOGORRA ETA TRINKOA
HASIERAN GANBILA, GERO LAUTUA	OINALDEAN BOLBA ZABAL, ZURI, LODI, MINTZEZKOA ETA ELASTIKOA DAUKA	

Ataza: perretxiko jangarrien deskripzioak irakurri, eskemak osatu eta elkarri kontatu (30')

- Hiru taldetan jarriko dira. Talde bakoitzak perretxiko jangarri banaren deskripzioa irakurriko du, eta dagokion eskeman falta dena jarriko du. (6. eranskina)
- Hirunaka jarrita eta osatutako eskemetan oinarrituta, batak besteari perretxiko jangarrien deskripzioak ahoz azaldu.

Feedbacka: taldeka, informazio berriaren inguruko adierazpen batzuk egia ala gezurra diren esan. Hasieran argazkien inguruan esandakoa egiaztatu (15')

- Berriro ere hiru taldetan bilduko dira (eskema osatzeko bildu direnak), eta lehen irakurritako hiru perretxiko jangarriei buruzko adierazpen batzuk emango dizkiegu, egia ala gezurra diren esan dezaten.

Erantzun-orria

	Egia	Gezurra
1. Kuletoaren txapelak gainalde biluzia du, garatxorik gabea.	Egia	
2. Gibelurdinak erreakzioa sortzen du burdinaren sulfatoarekin, eta hilgarri bihurtzen da.		Gezurra
3. Kuletoa Amanita muscaria perretxiko pozoitsuarekin nahas daiteke, baina badira bien arteko alde nabarmenak, eta kontu pixka batekin erraz desberdintzen dira.		Gezurra
4. Onddo beltzaren zaporea eta usaina ez dira oso onak, nahiko onddo mingotsa baita.		Gezurra
5. Udaberria da onddo beltza ateratzeko sasoirik aproposena.		Gezurra
6. Perretxikozaleentzat, kuletoa perretxiko jangarrien erregea da.	Egia	
7. Gibelurdinak fruitu usaina du.	Egia	
8. Kuletoa neguan ateratzen da batez ere, zelai zabaletan.		Gezurra
9. Amanita phalloides edo hiltzaile berdea izeneko perretxikoarekin nahas daiteke gibelurdina, biak baitute kolore berdexka. Hala ere, hiltzaile berdeak hankan bolba eta eraztuna ditu. Beste alde batzuk ere badituzte.	Egia	
10. Txikia denean, kuletoa hiltzaile berdearekin nahas daiteke. Bi perretxiko hauen nahasketa eman zioten Claudio enperadoreari, Neron agintean jartzeko.	Egia	
11. Onddo beltza perretxikozaleen artean oso preziatua bada ere, ez da jateko oso ona delako, duen tamaina duelako baizik.		Gezurra
12. Kuletoaren txapela kolore askotakoa izan badaiteke ere, ohikoena gorri-laranja da. Hala ere, Euskal Herritik kanpo berdexkak, marroixkak eta horixkak ere badaude.		Gezurra
13. Gibelurdina udan eta udazkenean ateratzen da.	Egia	
14. Onddo beltzaren hanka nahiko fina da, nahiz eta behetik sabeldu samarra izan.		Gezurra
15. Kuletoak ez dauka bolbarik oinaldean.		Gezurra
16. Gibelurdinaren txapela hasieran esferikoa da, gero lautu xamarra da, eta azkenean, erdialdea zapaldua du.	Egia	
17. Onddo beltzaren txapela marroi antzekoa izaten da beti, argia edo ilunago, baina marroia beti. Batzuetan ia beltza ere izan daiteke.	Egia	
18. Gibelurdinaren hanka nahiko luzea da. Igeltsu moduan erabil daiteke arbelean idazteko.		Gezurra

- Hasieran irudiei buruz esandakoak egiaztatuko dituzte. Horretarako, 4. bideo-pasartea (7. eranskina) ikusiko dute. Bertan perretxikoen argazkiak eta izenak agertuko dira; jangarriak diren ala ez ere adierazita egongo da.

Gramatika eta diskurtsoa: -xka atzizkia landu (15')

- Deskripzioetan agertu diren hitzak izango ditugu zerrendatuta, eta lehenengo eta behin, zein perretxiko deskribatzeko erabili diren esango dute. Ondoren, taldeka jarriko dira eta hitzak banatuko ditugu taldeetan. Hitz bakoitza beste zer deskribatzeko erabil daitekeen pentsatuko dute. Besteek minutu bat izango dute taldeetan pentsatutakoa zer izan den asmatzeko.

Atazaostea: nork bere eskarmentuaren berri eman (5')

- Perretxiko hauek ezagutzen zituzten ala ez esan, eta besteren bat ezagutzen badute, nolakoa den esango dute.

ARGAZKIAK:

Jangarriak: 1 (Kuletoa edo Amanita caesarea); 4 (Onddo beltza edo Boletus aereus); 7 (Gibelurdina edo Russula virescens).

Ez jangarriak: 2 (Lur-izarra edo Astraeus hygrometricus. Onddo da); 5 (Kaiola edo Anthurus archeri. Perretxikoa da, eta jangarria ez izateaz gain, kristoren kiratsa omen dario). Hilgarria: 6 (Hiltzaile berdea edo Amanita phalloides. Perretxikoa da eta heriotza eragiten du).

Perretxiko / onddoa ez dena: 3 (patata multzo bat da / argazki hau montajea da, ez da benetakoa, beraz, zuek ikusi pista moduan ikasleei argazkien artean montaje bat dagoela esango diezuen ala ez).

Helburuak:

- Pasadizo bat entzun eta zehaztasunez ulertzea.
- Pasadizo bat ahoz kontatzea.
- Aditzaren aspektua lantzea.

Zertan den:

Perretxikoak janda gertatutako toxikazioak guk uste baino sarriago gertatzen dira, antza. Ataza honetan Felix Iñurrategik behin nola toxikatu zen kontatuko digu: noiz bildu zituen perretxikoak, zergatik hartu zituen, zer gertatu zitzaien gero...

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: entzungo dutena asmatu, hitz solteetan oinarrituta (10')

- Felix Iñurrategik perretxiko batzuen kontura bizi izandako esperientzia entzungo dugu. Ikasleei entzungo dutenaren inguruko hitz solte batzuk emango dizkiegu, eta denen artean F. Iñurrategik kontatuko diguna asmatzen saiatuko dira. Iritzi desberdinak adierazten badituzte, denon artean hitz egin eta aukera errealean arbelean jasoko ditugu.

Ataza: pasadizoa entzun eta pentsatu dutena egiaztatu. Gertatu zenari buruzko esaldiak osatu, hitz batzuk kontuan hartuta. (20')

- 5. bideo-pasartean (8. eranskina) Felix Iñurrategiren pasadizoa entzun eta lehen pentsatutakoarekin alderatu.
- Talde txikitan, gertatu denari buruzko esaldiak osatuko dituzte idatziz. Esaldi bakoitza eraikitzeko hitz bat edo beste izango dute.

Feedbacka: esaldiak alderatu (10')

- Talde desberdinetako partaideak binaka batuta, osatutako esaldiak alderatuko dituzte.

2

Ataza: aurreko egoeran aldagaiak sartu eta istorioa berreraiki. Istorio desberdinak elkarri kontatu (25')

- Talde txikitan jarriko dira berriro ere. Istorio honetako protagonistak bizi izandako egoeran aldaketa batzuk egon balira gertatuko zatekeena irudikatuko dute, eta horrela gertatu bailitzan prestatuko dute kontakizuna. Hau da, istorioa berreraikiko dute, aldagaiak sartuta. Horretarako, 9. eranskineko aldagaietako bana emango diogu talde bakoitzari.
- Talde desberdinetako partaideak batuta, prestatu dituzten kontakizunak elkarri azalduko dizkiote.

Feedbacka: entzundako istorioen inguruan hitz egin eta hasierakoarekin alderatu (10')

- Aurreko taldetxoetan batuko dira, eta entzun dituzten istorioen inguruan hitz egingo dute, ea denek ulertu duten gauza bera, zein gustatu zaien gehien, zergatik, ... Azkenik, Iñurrategik kontatutakoarekin alderatuko dituzte istorioak.

Gramatika eta diskurtsoa: aditzaren aspektua landu (20')

- Entzun dugun istorioaren testu idatzia izango dute aztergai. Egokituriko testu honetan aditzaren aspektua gaizki dago. Ikasleek adizki horiek zuzendu behar dituzte. Ondo egin duten ziurtatzeko, 5. bideo-pasartea jarriko dugu berriro.

IKASLEAREN LIBURUXKAN

Kurtso hasiera batean, Iruñean ikasi nuela, lehenbiziko aldiz joan behar izan nuen Billabara, eta lehenbiziko aldia zenez, eta igandean pisura ez joateagatik, lagun batekin joaten nintzen buelta bat ematera. Arratsaldean perretxiko batzuk ikusi ditugu, eta zizak zirela eman zuen, baina nik esaten nuen ez zela posible udazkenean udaberriko zizarik aurkitzea. Orduan, Jon Iñakik, lagunak, baietz esaten zidan, haiek zizak zirela. Nik ezetz, ez jotzeko adarrik, baina berak berriro ere baietz, zizak zirela eta usaintzeko esan dit. Egia esan, ziza usaina edukitzen zuten. Nik, sasoi hartan, udaberriko zizak aurkituz gero edukitzen nuen gordinik jateko ohitura, batik bat txikiak direnean oso finak izaten baitira, eta hortaz, ziza haiek probatzen nituen. Usainaz gain, zaporea ere bazeukatenez, biltzen genituen, eta etxera eraman.

Etxean, amari eman dizkiogu bildutako zizak. Amak perretxiko asko eta asko pasatu ditu eskuetatik, eta berak ere baietz esaten digu, horrela begiratuta zizak zirela, baina berak badaezpada ere ez zituela jan. Orduan, guk geuk jatea pentsatzen genuen. Amak tortilla eder bat prestatzen digu eta erdi bana jan genuen Jon Iñaki eta biok. Jan ondoren, bera Arrasatera joaten zen eta ni Billabara.

Bertako etxera heldu bezain laster, txahala botatzen ari nintzen, eta berehala pentsatzen nuen zizek eragindakoa izango dela. Hori ikusita, Jon Iñakiri deitzen ari nintzaion eta berari zerbait arraroa gertatu zitzaion galdetzen nion. Jon Iñakik baietz erantzun dit, zentroan egon zela eta izugarrizko garbiketak egiten zizkiotela, baina zegoeneko pasatuta eduki zuela. Hori entzunda, neuk ere txahala botako nuela eta neuk ere pasata izango nuela pentsatu nuen, baina bai zera! Gavean UBI n sartzen ninduten eta astebete pasa behar nuen ospitalean, nahiko gaizki. Harrezkero, urte batzuetan perretxikoak ezin izan ditut ikusi ere egin, baina poliki-poliki konfiantza hartu egiten da.

- Gero, beste bati entzundako pasadizo hori beraiek beste norbaiti kontatu beharko balioke, testuak zein aldaketa beharko lukeen esan, eta testua berridatziko dute. Hau da, lehenengo pertsonan egindako kontakizuna hirugarren pertsonan jarriko dute.

Atazaostea: norbere inguruan horrelakorik ezagutu duten esan (5')

- Perretxikoak janda pozoitutako inor ezagutzen duten esan, eta horretaz hitz egin. Baten bat ezagutuz gero, eskolara gonbidatu bere esperientzia kontatzera.

Helburuak:

- Norbaiti zaletasun bati buruzko aholkuak ahoz ematea.
- Aholkuak eta arrazoiak emateko esapideak lantzea.

Zertan den:

Orain badakigu perretxiko bila joatea benetan gustukoa dutela batzuk, baita mendian benetako altxorrek zein gai pozoitsuak ere topa ditzakegula. Baina perretxikotara joateko beharrezko ditugun jantziak eta tresnak zeintzuk diren ez dakigu oraindik. Ataza honetan, beraz, perretxikotara joateko behar diren jantzien inguruko aholkuak emango dizkiote elkarri, ea guztien artean jantzi egokiak hautatzen dituzten!

PROZEDURA:

Atazaurrea: irudi bat perretxikoak biltzera joateko moduan jantzi.

Perretxikozalearen ekipo egokia zein den erabaki (15')

- Ikasleak taldeka jarriko dira. Emango dizkiegun jantzi eta bestelako tresna izenen artean egokienak aukeratu eta perretxikoak biltzera joan nahi duen irudi bat jantzi eta beharrezko den guztia erantsi. Janzkera eta ekipoa aukeratzeko arrazoiak ondo pentsatu beharko dituzte, gero beste taldeetakoei azaldu ahal izateko.

* Jantzi eta tresnen izenak baino beroien marrazkiak nahiago izanez gero, jo [10. eranskinera](#).

IKASLEAREN LIBURUXKAN

- | | |
|--------------------------|-----------------------------------|
| ➤ Jertse lepo luzea | ➤ Makila |
| ➤ Artaziak | ➤ Plastikozko poltsa |
| ➤ Eskuarea | ➤ Euritakoa |
| ➤ Labana | ➤ Nikia |
| ➤ Zapatilak | ➤ Poltsa |
| ➤ Galtza bakeroak | ➤ Poltsikoko lupa |
| ➤ Gona | ➤ Txandal galtzak |
| ➤ Perretxikoen liburuxka | ➤ Botak |
| ➤ Aizkora | ➤ Oharretarako papera eta arkatza |
| ➤ Saskia | |

Ataza: perretxikozalearen janzkerari buruzko aholkuak eman, arrazoituz (20')

- Talde desberdinetako kideak elkartuko dira, eta elkarri adieraziko dizkiote aukeratu dituzten jantzi zein bestelako tresnen arrazoiak. Hau da, elkarri aholkuak emango dizkiote perretxikotara joateko jantziei buruz.

Feedbacka: testua irakurri eta irudia ondo jantzi duten esan (15')

- "Perretxikozalearen janzkera" testua irakurriko dute, eta irudiari beharrezko gauza guztiak jarri dizkioten esan.

Gramatika eta diskurtsoa: aholkuak eta arrazoiak emateko esapideak landu (20')

- Irakurri duten testuan perretxikozalearen janzkerari buruzko hainbat aholku ikusi ditugu. Orain, aholku horiek emateko formak aztertuko ditugu. Lehenengo eta behin, binaka jarrita, hitz batzuk emango dizkiegu, eta horien inguruan emandako aholkuak idatzi egingo dituzte.

IKASLEAREN LIBURUXKAN

Perretxikoak bildu
Arropa
Makila
Labana
Zumezko otzara
Poltsikoko lupa
Arkatza eta papera
Plastikozko poltsa

- Testua hartu eta hitz horien inguruan emandako aholkuak forma horretan eman diren esan. Guztion artean, aholkuak emateko esapideak zerrendatuko ditugu.
- Ondoren, aholku bakoitzaren inguruko arrazoiak zerrendatuko ditugu denon artean, eta arrazoi horien azalpena egiteko formak azpimarratuko ditugu testuan.
- Bi taldetan jarrita, A taldeak hondartzara eguzkia hartzera joateko aholkuak prestatu beharko ditu, eta B taldeak, berriz, egun osoko mendi buelta bat egiteko aholkuak.
- Talde bakoitzak aholkuak albo batean zerrendatuko ditu, eta hauek emateko arrazoiak bestean, eta arrazoiak nahastu egingo dituzte. Ondoren, egindako lana trukatu eta zutabeak lotu egingo dituzte.
- Binaka jarrita, azalpenak eman eta ondo egin duten esan.

Atazaostea: perretxikozaleen janzerari buruz hitz egin (10')

- Guztion artean perretxikozaleen janzerari buruz hitz egingo dugu. Hona hemen aipa daitezkeen galdera batzuk:
 - Inoiz perretxiko bila joan bazara, nola joan zara? Zer eraman duzu?
 - Testuan ematen zaizkigun aholkuak neurritz kanpokoak direla uste duzu?
 - Zure ustez, zer da derrigorrean eraman beharrekoa?
 -

6. ataza: Perretxiko-biltze segurua eta eraginkorra

110'

Helburuak:

- Batak besteari informazioa eskatzea eta ematea.
- Gaiari buruzko dekalogoia idaztea.
- Ezezko esaldietako ordena lantzea.

Zertan den:

Dagoeneko badakigu jende askok duela perretxikotara joateko zaletasuna eta perretxikoen artean altxorrek zein arriskuak aurki ditzakegula, baita perretxikotara joateko janzkera ere nolakoa behar duen. Orain, saskia hartuta mendira joatea erabakiz gero perretxiko-biltze segurua eta eraginkorra izan dadin zer egin behar dugun jakitea baino ez zaigu geratzen. Azken ataza honetan horren inguruan arituko gara.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: hitz batzuk emanda, zer irakurriko duten asmatu eta elkarri kontatu. Falta denaren inguruko galdera batzuk erantzun (15')

- Ikasleak bi taldetan jarriko dira. A taldeak "Perretxiko-biltze segurua eta eraginkorra" testuaren erdia hartuko du eranskinetatik, eta B taldeak beste erdia. (Ikaslearen eranskinetan "Zer falta dela uste duzue? fitxak). Zati bakoitza lau pabost zatitan moztu eta taldekideen artean banatuko dugu. Zati horietan hitz bakar batzuk baino ez dira egongo idatzita. Bakoitzak egokitu zaion testu zatia osatu beharko du, zati horretan falta den informazioa zein izan daitekeen esanez. Kontuan hartu behar dute testu horretan perretxikotara joateko aholkuak ematen direla.

Ataza: batak besteari falta zaion informazioa eman (25')

- Bakoitzak bere zatia osatu ondoren, taldekideei azalduko die, eta ondoren dagokien testu-zati osoa irakurriko dute, pentsatu dutena egiaztatzeko. (11. eranskina). Denen artean horretaz jardungo dute.
- Gero, beste taldekoek duten informazioari buruzko galdera batzuk emango dizkiegu, erantzunak zeintzuk izan daitezkeen esan dezaten.

A TALDEA

B taldearen zatiari buruzko galderak

1. Zer egin behar da bildu dituzun perretxikoen inguruko aholkuak jasotzeko? Eta emateko?
2. Jateko direnean, nola prestatu behar dira perretxikoak?
3. Nola jakin liteke perretxiko bat ona ala txarra den? Badago arau magikorik?

B TALDEA

A taldearen zatiari buruzko galderak

1. Zer da Mikologia? Egokia da mikologiari buruzko ezagutza izatea perretxikoak biltzera joateko?
2. Perretxikoak osorik hartu behar dira, ala txapela baino ez? Ala beste nonbaitetik moztu behar dira?
3. Perretxiko on guzti-guztiak hartu behar

4. Zer egin behar da pozoituz gero?

dira? Eta zaharrak direnak?

4. Zer egin behar da basoan perretxiko pozoitsu bat ikustean?
5. Nola eraman behar dira perretxikoak otzara barruan?

- Binaka batuko dira, talde bakoitzeko bana, eta galderen inguruko informazioa emango diote elkarri.

Feedbacka: taldekideen artean, jasotako informazioa bat datorren egiaztatu (10')

- Taldeak batuko dira, eta jaso duten informazioaz hitz egingo dute, denek gauza bera ulertu duten ziurtatzeko.

2

Ataza: osatu duten testutik abiatuta, perretxikozalearen dekalogoia idatzi (30')

- Lehenengo eta behin, dekalogo bat zer den galdetuko diegu, eta horretaz hitz egingo dugu. Dekalgorik ospetsuena zein den galdetuko diegu (seguru aski hamar aginduak).
- Horretaz jardun ondoren, taldeka jarri eta perretxikozalearen dekalogoia idatziko dute, ataza honetan esku artean izan duten informazioa edota aurretik zekitena kontuan hartuta.

Feedbacka: dekalogoak alderatu (10')

- Talde desberdinetako kideak batuta, egindako dekalogoak trukatu eta irakurri egingo dituzte. Bakoitzak egindakoa eta irakurri duenaren arteko aldeak zeintzuk diren esan beharko du.

Gramatika eta diskurtsoa: ezezko esaldien ordena landu (15')

- Testutik atera ditugun esaldi batzuk aztertuko ditugu. Ordena aldatuta izango dute, eta ikasleen lana hitz bakoitza bere lekuan jartzea izango da. Zuzentzeko, testuan begiratuko dute.

IKASLEAREN LIBURUXKAN

1. Perretxikoak osorik biltzea komeni izaten da, lur apur batekin, lurpean zatirik ez dadin gera.
2. Osorik hartzen denean ez da behar lurra marraskatu
3. Perretxiko heldu eta osasuntsuak ez baino dira bildu behar.
4. Ez dira ezagutzen ez ditugun edo pozoitsuak diren perretxikoak zapaldu edo hondatu behar.
5. Gogoratu gure fisiologia beste animalia batzuen bezalako ez dela.
6. Kontuan hartu ez dela egia animaliek jandako perretxikoak pozoitsuak ez direnik.
7. Perretxikoak ez honda daitezten bidean, hosto, goroldio edo belarretan bil daitezke.
8. Perretxikoak jangarri izateari buruzko aholkuak ematen dizkizuna ez bada Mikologia elkarteren batekoa, ziurtatu badakiela zertaz hitz egiten ari den.
9. Ez da egia leku berean ateratzen diren perretxikoak bati jangarriak direnik.
10. Perretxiko jangarri batzuk ez aldatzen dute kolorea.

Atazaostea: perretxiko bila joateaz hitz egin (5')

- Galdera hauen inguruan hitz egingo dugu denon artean:
 - Uste duzu perretxiko bila joaten direnek dekalogoetan aipatzen diren arau guztiak errespetatzen dituztela?
 - Zuk zeuk denak errespetatuko zenituzke?
 - Zeintzuk iruditzen zaizkizu araurik garrantzitsuenak? Zergatik?

3. ERANSKINAK

1. eranskina

Ikaslearen autoebaluazio-orria

Erantzun galdera hauei:

- Hemendik aurrera gai honi buruzko dokumental teknikoren bat ikusi edo testuren bat irakurtzen baduzu, zer moduz moldatuko zara?

- Zer moduz moldatuko zinateke lagun bati perretxiko bat nolakoa den azaltzen?

- Eta lagun horri gai honen inguruko aholkuak ematen?

- Entzun dugun / ditugun pasadizoren bat norbaiti kontatu behar izango bazenio, zer moduz moldatuko zinateke?

- Idatzi zure ustez ondoen egiten dituzun hiru gauza:

- Idatzi zure ustez hobetu behar dituzun hiru gauza:

- Zer da gehien gustatu zaizuna ikastunitate honetan? Zergatik?

- Zer da gutxien gustatu zaizuna? Zergatik?

- Ikastunitatea baliagarria izan da zuretzat? Zergatik?

- Esan zer iritzi zenuen lehen perretxikoak biltzen ibiltzen direnei buruz, eta orain zer pentsatzen duzun: Zuretzat zerbait aldatu da?

Ibai Olariagaren jarduna

Bueno, nere perretxikoekiko zaletasuna aspalditik dator... bost edo sei urte nituenetikan, eta horren errudun neurri handi baten nere amaren familiakoak dira, ez? Bai nere ama bera, nere osaba, aitona-amonak... denak perretxikozaleak ziren, eta dira, eta mendira joateko ere ikaragarriko afizioa zeukaten, ez? Eta orduan, haiekin mendira joaten eta bueno, perretxikoak biltzen eta, apurka-apurka nere zaletasuna indartzen joan egin zen, eta pixkanaka-pixkanaka liburutan begiratzen hasi nintzen, espezie gehiago ikasten, eta hola, denborarekin perretxiko mordoska ezagutzen ditut, ez?

Bestalde, nere zaletasuna mendira joaten osatzen dut, edo indartzen dut, ez? Nere zaletasuna ez da perretxikoekiko bakarrik, ze jakingo duzue, behintzat jateko perretxikoak edo perretxiko handiak urtaro zehatz jakin batean daude eta perretxikorik ez dagoenean, bestalde, mendira joatea ere ikaragarri pozgarria da eta osasungarria, eta niri ikaragarri gustatzen zait, eta nolabait gainera perretxikoak gustatzen baldin bazaizkizu eta bide batez mendian buelta bat ematea baldin badaukazu, zer hoberik hori baino?

Trufa: urre beltza

A TALDEA

Maila handiko ia sukaldari guztiek daukate trufak tarteko diren jakiren bat menuan. Hori bai, kiloko 600 eurotik gora ordaintzeraino preziatuak dira (aurten 900 eurotik gora ordaintzen ari dira, urte txarra dela eta). Trufen merkatua bera ere ia ezkutukoa dela esan daiteke. Izan ere, tratuak tabernetan, ezkaratzetan eta horrelakoetan egiten dira, trufak ikusi ere egin gabe eta salerosketa aparte samar dauden tokietan, eta askotan ordu txikitik. Espezie guztietan preziatuena trufa edo Piamonteko boilur zuria (*Tuber magnatum*) da (5.000 euro kiloko), baina gehien erabiltzen dena boilur beltza (*Tuber melanosporum*) da, zerrendako bigarrena eta frantsesek horrenbeste gorai patzen duten Perigord-a.

Aipatutako prezioa ikusita, pentsa genezake jendea saiatu dela era kontrolatuan erein eta biltzen. Horrek boilurren ezaugarriak, zikloa eta beharrianak ondo ezagutzea eskatzen du. Gehien aztertutako espeziea boilur beltza da. Boilurrek tuberkulu itxura dute eta bildu ere lurpetik biltzen dira, baina berez onddoak dira, *Ascomycotina* klasekoak. Hasieran, beste hainbat onddorekin gertatzen zen bezalatsu, euren biologiaren hainbat gauza ezezagunak ziren eta horrek boilurren inguruko "misterioa" areagotu besterik ez zuen egiten. Hala ere, urteak pasa ahala ikerketak ugartu egin dira, eta gaur egun boilurren zikloaren inguruko ia guztia ezaguna da.

Esaterako, badakigu *Tuber* generoaren ziklo biologikoa nolakoa den. Udaberrian esporak hozitu eta mizelioa garatzen hasten da. Mikorritzatze berriak udaberrian hasten dira. Mikorritzen bidez, zuhaitz edo zuhaixkaren eta onddoaren truke fisiologikoa gauzatzen da (beste onddo-espezieak ere eratzten dituzte mikorritzak). Mikorritza horietatik hifa berriak sortuko dira eta azken horietatik sortuko dira, maiatza inguruan boilur-hasikinak.

Gehienetan ugari izaten dira, udari aurre egiteko (bero handiak eta eguraldi lehorrak horietako asko honda ditzake eta). Uda

iristean mikorritzen jarduera eten egiten da eta udazkenean jartzen da berriz ere abian. Uztaileko eta abuztuko eguraldia egokia izan bada, iraun duten hasikinak hazi, garatu eta udazkena amaitzerako trufa edo boilur bilakatuko dira. Neguan, abendua eta martxo bitartean, boilur horiek heldu egingo dira eta martxo inguruan esporak askatuko dituzte intsektuek sakabana ditzaten.

Askotan, abuztua inguruan boilur hasikinak edo trufa txikiak diren horiek lurpetik atera egiten dira, maiz itxura eta forma bereziki. Hori dela eta, hainbatek espezie berriak identifikatzeari eta izendatzeari ekiten dio, ordura arte ezagunak ziren boilur guztiak lurpekoak zirelakoan.

Beraz, jaten dena, gainerako onddoetan bezala, onddoaren fruitua da. Baina jaten ditugun gainerako onddoetan ez bezala, *Tuber* generoko fruituak lurpean garatzen dira. Horregatik erabiltzen dira hezitako txakurrak ale preziatuak aurkitzeko (txerriak gero eta gutxiago erabiltzen dira). Hala ere, zenbaitetan kanpotik ere susma daiteke non dauden. Izan ere, mizelioa ondo garatuta dagoen tokia "erre" egiten da eta mikorritzatutako zuhaitz edo zuhaixkaren inguruan ez da ia belarrik hazten. Mizelioak egoteak, ordea, ez du boilur-alerik dagoenik adierazten eta, horregatik, hobe da animaliak erabiltzea ziurtasunik gabe lurpean zuloa egin eta mizelioak hondatzea baino. Basoa itxi samarra denean, gainera, belar gutxiago izaten da lurpean eta gune "erreak" bereiztea zailagoa da.

B TALDEA

Non hazten dira boilurrak?

Boilurrak, oro har, Europan klima mediterranea duten tokietan hazten direla esan daiteke. Boilur beltza batez ere Portugal, Espainia, Frantzia, Kroazia, Bosnia-Herzegovina eta Jugoslavian hazten da. Dena den, Euskal Herria, Suitza, Alemania, Hungaria, Bulgaria eta beste zenbait herrialdetan ere topatu izan da. Gurean, Nafarroan eta Araban hazten dira.

Boilur beltza 100 eta 1.000 metro bitarteko altituedetan hazten da (gehienetan 100-600 bitartean), klima mediterraneo epel-hezean edota hotz subhezean. Urtean 600-900mm-ko prezipitazioa behar du bere zikloa osatzeko. Udaberrian, hasikinak osatzen ari direnean, 50 mm behar ditu gutxienez eta uztaila-abuztuan ere guztira 100 mm, hasikinak gal ez daitezen. Ikerketa guztien arabera uda da garai kritikoa eta, horregatik, landaketetan ureztatze-sistemak jartzen dituzte maiz.

Landaketak

Batetik, merkatuan duten balioak eta, bestetik, mendian sastrakak nagusitzeak eraginda zenbait tokitan boilur naturalen ekoizpena behera doala ikusita, asko dira boilur-landaketak egiten saiatu direnak eta zenbait tokitan etekinak ere lortu dituzte. Dena den, boilur beltzak behar dituen baldintza orokorrak ezagutu eta landaketa-gunean horiek bete arren, ezin izaten da jakin zer gertatuko den; ez baitakigu hifak zeren arabera ematen duen edo ez duen boilurra. Zikloa urte osokoa izanik, onddoetan eragina duten faktoreak hainbat direla uste da. Gainera, zuhaitz eta zuhaixkekin mikorrizak eratzen dituztenez, horietatik elikagaiak eskuratzeko, zilegi da horien egoerak ere eragina izango duela pentsatzea. Lurrean egindako mikorrizatzeetan, batzuetan zuhaitzak mikorrizatzeak errefusatu egiten ditu eta zaila da oso arrakastarik izango ote duten auresatea. Edonola ere, gaur egun zuhaitz guztiak aurrez mikorrizatuta aldatzen dira eta arrakasta areagotu egin da. Are gehiago landaketetan garai lehorrenetarako ureztatze-sistemak jarri dituztenetik. Trufa

zuria artifizialki mikorrizatu eta haztea ez da lortu oraindik.

Nafarroan egindako landaketetan haritzak, erkametzak, arteak eta hurritzak erabili dituzte, nahiz eta beste hainbat espezie ere mikorriza daitezkeen. Zuhaitzak jada mikorrizatuta landatzen dira. Ikusi dutenez, ez da komeni landaketarako prestatutako lursailean aurretik baso-zuhaitzak egon izatea, haiek mikorrizatutako onddoak oraindik bertan egon daitezkeelako, eta beste onddo horiek, gehienetan, Tuber generoa baino lehiakorragoak izaten direlako. Egokiago da aurretik zerealak eta leguminosoak egon izana; mahasti edota fruta-arbolek ere ez dute kalterik egiten. Nafarroan Lokiz eta Alaitz mendietan egin dituzte saiakuntzak eta, lortu, lortu dute emaitza txukunik. Araban ere saiatu dira eta emaitza onak jaso dituzte. Nafarroako enpresa batek 600 hektareako lursaila du Sorian (munduko handiena) eta emaitza onak izaten dituzte, are hobekak ureztatze-sistema jarri dutenetik. Iaz 45.000 kilo jaso zituzten.

Oro har boilurren zikloaz nahikotxo dakigun arren, ikerketak aurrera doaz eta zenbait oso zehatzak ere badira. Frantzia eta Italiako laginekin egindako ikerketa batean, esaterako, boilur beltzaren aldakortasun genetikoa oso txikia dela ikusi da (azken glaziazioak eraginda, seguruenik) eta, beraz, aipatu izan diren forma- eta zapore-barietateak lurra edota klimak eragindakoak direla ondorioztatu dute. Ikusi egin behar ikerketek zer ematen duten eta, bide batez, ea hain onak omen boilurrak guztiok probatzeko moduko salneurrian jartzeko balio duten. Eta argi, zenbait tokitan kalitate txarragoa duen Tuber indicum izeneko boilur beltza dela esanda saltzen ari dira eta. Azken honen prezioan, noski.

Eneko Imazi elkarrizketa

Iraupena: 9'08''


Trufa edo boilurra

- Eneko Imaz, Elhuyarreko kidea. Arratsalde on.
- Bai, arratsalde on.
- Trufa edo boilurra, ezta? Hala esaten zaio.
- Bai, hori da.
- Esan dugu, askotan entzun bai, entzun dugu, dastatu gutxitan eta batzutan ez dugu jakiten benetan zer den. Zer da trufa? Eneko, zer da boilurra?
- Bueno, boilurrak onddo batzuk dira, perretxiko batzuk, esan dezagun. Gertatzen dena da ba normalean ba ez ditugula ikusten ba lurpean hasten delako. Gainontzeko perretxikoak ba, fruitua edo, guk jasotzen duguna, lurretik kanpora ematen dute, perretxiko gehienek, eta trufa edo boilurrek ba lurpean ematen dute. Baina berez perretxikoak dira, onddoak dira. Ez dute gozogintzako, pastelerietan-eta ikusten ditugun trufa horiekin zerikusirik.
- Zaporea ere antzekoa al dute? Ez dakit probatu dituzun...
- Ez, ez, antzekotasun bakarra formarena da eta horregatik deitzen zaie bonboi horiei, horregatik deitzen zaie trufak, baina zaporean eta osagaietan eta ez dute batere trufarik.
- Eta perretxikotan bezala, boilurretan ere espezie desberdinak al daude?
- Bai, talde bat dela esan genezake. Ba gibelurdinetan "rusulak" esaten dena ba genero berrian, ba espezie desberdinak dauden bezala, ba trufak edo boilurrak "tuber" generokoak dira, eta horren barruan ba badira "tubermagnatum" "esporum"... eta bueno, ba hainbat daude. Eta bueno, izenaren arabera ba prezioa izaten dute.
- Eta zaporea ere desberdina izango da, noski.
- Bai, izango da.
- Eneko, trufak biltzeko garaia zein da? Edo ez dago garairik? Edo bakoitzak bere garaia du?
- Bai, ez, garaia badute guztiek antzeko garaia-edo izaten dute. Ba hasten da gutxi gorabehera... hasten da abendu inguruan edo, azaro-abenduan, eta orain martxoan-edo bukatzen da, martxo hasiera, erdialde horretan edo bukatzen da ja biltzeko garaia.
- Eta zer baldintza eman behar dira trufa onak lortzeko? Badakigu onddo edo perretxiko onak lortzeko zer behar den, baina ez dakigu kasu honetan oso desberdina ote den.
- Bai, desberdina da. Bueno, hauek gutxi gorabehera hasten dira... udaberrian hasten dira sortzen, esan dezagun, esporetatik edo hazietatik. Udaran halako geldialditxo bat-edo izaten dute, ze azken finean ba trufak hazten dira ba gurea baino klima lehorragoetan. Bueno, ez dute behar ezta ere izugarritzko lehortea, baina bueno, 500, 600, 700 mililitro botatzen dituen parajeetan ez? Ba hori izango litzateke ba hola pixka bat ulertzeko ba Gasteiz, Lizarra... ba inguru horretako klima-mota. Gutxi gorabehera paraje horietakoa, Euskal Herriaren kasuan hegoaldeko klima. Eta bueno, hor ba orduan udara izaten da ba pixka bat garai kritikoa, ze toki lehorrekoak dira baina ba behar dute ba gutxieneko humedade bat edo hezetasuna behar dute. Orduan ba oso uda lehorrak direnean ba udazkenean-eta ba gutxiago biltzen da.
- Beraz, esango du lurralde beroetan baina era berean hezetasuna duten lekuetan asko izango direla. Euskal Herrian esan dugu batez ere Araban eta Nafarroan. Bestela non? Non hazten dira hauek?
- Nafarroan, gero ba penintsularekin pixka bat jarraituz ba bueno, Soria eta Teruel eta inguru horietan, ba nahiko lehorrak direnak baina altuerak era berean ba hezetasuna ematen dieten tokiak, eta gero ja ba bueno, Frantziako hegoalde guztian, Italia... Balkanetaraino. Hori, gutxi gorabehera European behintzat hori dute banaketa.
- Beti ikusi izan dugu trufa bila doana, ez dakit pelikuletako kontua ote den, e, baina txakurra hartuta eta batzuetan txerria hartuta. Zergatik txerria?
- Bai, bueno, garai batean gehiago erabiltzen zen txerria. Oraindik Frantziako zenbait eskualdetan ere jarraitzen dute txerriarekin, baina bueno, pixkanaka-pixkanaka ba txakurra erabiltzera pasa dira, ez? Ba besteak beste...

- Eta ez dituzte jaten?
- Ez, bueno, hor ibili behar da kontuz.
- Noski. Erakutsi egin beharko zaie. Txakurrari erakustea erraza, baina txerri bati erakustea ez dakit oso erraza izango den.
- Hori da eta kontrolatzea ere ba zailagoa bada, ze txerriari berez gustatzen zaizkio trufak, eta gustu horretaz, zaletasun horretaz, usaimen finaz ba baliatzen dira trufak-eta bilatzeko, ez? Zakurrari... berez ez dauka trufak jateko joerarik, gertatzen dena erakusten zaiola hori usaindu eta sari bat jasotzera, ez? Normalean ba trufak bilatu eta gero gozokiren bat edo azukre kokorren bat edo zerbait ematen zaio sari bezala.
- Ehizan bezala orduan.
- Hori da. Ez dauka berez boilurrak jateko zaletasun hori. Txerriak, aldiz, bai. Jan egingo luke utziz gero...
- Moko finak dira nahi dutenean, e...
- Barkatu?
- Moko finekoak direla nahi dutenean.
- Bai, bai, bai. Denetik jaten dute baina badakite fin aukeratzen, bai.
- Dena dela, esan dugu landatu ere landatzen direla trufak, boilurrak.
- Bai, bueno, beste perretxiko asko bezala, ba hori, boilurrak ere hazten dira landareekin sinbiosian. Sustraietan, esan dezagun, ba... bueno, perretxikoetan guk jaten duguna, bilatzen duguna berez da fruitua, gorputza bera edo, landareaz ez da egoki esatea baina, gorputza bera lurpean egoten da. Izaten da holako lizun moduko hari zurixka ilara bat, ez? Eta guk jasotzen duguna da fruitua. Ba sagarrondo batean sagarra jasoko bagenu bezala. Orduan, normalean onddoak eta perretxikoak-eta egoten dira sinbiosian landareekin, sustraietan elkartzen dira eta sortzen dituzte halako kiste moduko batzuk eta bueno, ba irabazten ateratzen da landarea eta baita ere onddoa bera, ez? Ba elkarri ba mineralak-eta elikagaiak-eta pasa. Orduan, ba trufak ere e, barkatuko didazu baina ahaztu zait galdera...
- Landatu ere landatzen direla. Askotan pentsatzen dugula hor zehar agertzen direla, baina jendeak landatu ere landatzen dituela.
- Askotan egiten dena da, edo gaur egun ja geroz eta gehiago eta biltzen den boilur gehiena halakoxea izaten da, ba ja sinbiosia egina daukan landarea landatzen da. Mikorritzatuta, e, hori entzule askok entzungo zuten seguru asko behintzat zuhaitzetan eta fruitu arboletan-eta pixka bat ibili dena ba mikorritzatuta, eta horrek esan nahi du ba landareak, zuhaitz horrek jada baduela onddoaren edo kasu honetan boilurraren ba sinbiosi hori egina. Eta orduan ba gero landare horren inguruan haziko dira, sortuko dira boilurrak.
- Eta guztiarekin bezala, boilurrarekin, trufekin ere, ikerketak egin dira, Eneko, eta esan dute trufan aldakortasun genetiko oso-oso txikia duela trufak. Ez dela asko aldatzen. Zer esan nahi du horrek?
- Ez, ba horrek esan nahi du ba gutxi gorabehera denak ez dira talde berekoak, noski, esan dugu espezie desberdinak direla, baina seguru asko esan nahi du arbaso bertsutik sortuak direla. Hori lotzen da ba bueno, glaziazio garaiekin eta horrela, ez? Azken finean azalpena da ba glaziazio garaian oso toki gutxian, txikian, geratu zirela trufak, geografikoki, ba demagun Euskal Herrian izotza nagusitu baldin bazen eta ez dakit zer, ba trufak bakarrik agertzen zirela ba Donostia inguruan. Eta orain, klima hobetu denean, ba hortik zabaldu direla berriz ere Euskal Herri osora; konparazio baterako, e. orduan, ba bueno, Euskal Herri osoko horien geneak ba oso antzekoak izango lirateke ba guztiak toki bertsutik datoze-lako, ez? Ba trufarekin antzeko... behintzat teorien artean-edo hori erabiltzen dute, e, oso lokalizazio geografiko txikitik abiatuta zabaldu dela gaur egun dagoen lurraldera. Eta horregatik ba denak ahaideak direna nolabait esateko.
- Eta denak oso preziatuak. Nik ez dakit prezioa, zenbatean dagoen orain trufa, baina oso-oso garestia da, ezta?
- Bai, aurrean gainera, iazko urtean, udara labur samarra izan zen antza eta, bueno, nahiko gutxi-edo bildu da eta gehien ordaintzen dena, bueno, gehien ordaintzen dena, trufa zuria edo boilur zuria, hori 5.000 eurotik gora dago...
- Baina 5.000 euro, kiloak?
- Bai, kiloak.
- A, oso ondo. Normala ez probatzea, ezta?
- Eta gero ba, hori da garestiena, eta gehien saltzen dena, boilur beltza-edo esaten zaiona, ba hori merkexego dago, 900 bakarrik.

- Bai, besterik gabe, 900 euro afaritxo bat egiteko, ezta? Boilur kilo bat erosi eta aurrera.
- Bueno, esaten dute oso kantitate txikia erabili behar dela, bestela ez omen da oso-oso atsegina gustura ere. Beraz, gutxi botata gustu hobea omen du.
- Sukaldari bati hots egingo diogu. Gaur egun sukaldaritzan asko erabiltzen delako; goi-mailako sukaldaritzan beti ere, e?
- Bai, goi-mailakoak behintzat preziatua izan nahi badu eduki behar du halako plateren bat trufekin egina.
- Bueno, ba dastatu duenak, hots egin dezala faborez eta kontatu dezala hemen, Babelen, ze zapore duen, ze horrekin geldituko gara, ez dakigu ze zapore duen. Ona izango da, prezioa behintzat altua delako. Ba Eneko Imaz, eskerrik asko boilurraren inguruko kontu hauek denak azaltzeagatik.
- Zuei.
- Gero arte.

Perretxiko batzuen eta beste jaki baten 7 argazki.





A TALDEA**Onddo beltza (Boletus aereus)**

Onddo hau perretxikozaleen artean preziatuenetarikoa bat da, eta aurkituz gero, trofeo moduan erakusten da.

Txapelak azal lehor eta askagarria du eta bere kobre kolore polita argiagoa edo ilunagoa izan daiteke baina marroi antza beti, eta batzuetan, ia erabat beltza. Ale helduen txapelaren diametroak 15 edo 20 zentimetro edukitzen ditu eta 30 zentimetro baino zabalagoak ere ikus daitezke noizbehinka.

Hodiak libreak dira, hasieran zuriak, gero horixkak eta azkenean hori-berdexkak. Poroak biribilduak dira eta hodiekin batera aldatzen dute kolorea.

Hanka lodia da, sabeldu samarra behetik. 5-12 zentimetroko altuera du, batzuetan 18koa, eta diametroa 3-6 zentimetrokoa eta inoiz 9koa. Hankaren kolorea marroi argia edo txapelarena bezalakoa da, baina tonu argiagoak ditu kasu honetan. Sare zuri batek inguratua, batik bat hankaren goiko aldetik.

Mami zuri eta aldagaitza du, eta ez da kolorez aldatzen kutikularen azpian, ezta ebaki edo apurtzerakoan ere. Zapora atsegin eta lurrintsua du, usaina bezalakoa. Horregatik da perretxikozale zein "gourmet"entzako boletus generokoan arteko onena.

Espora-jalkina iluna da eta ñabardura hori-berdexkak ditu.

Udazkenean ateratzen da, pagadi eta hariztietan. Artadietan ere aurki daiteke.



Erantzun-orria

Onddo beltza (*Boletus aereus*)

PERRETXIKOZALEEN ARTEAN DUEN OSPEA	preziatuenetarikoa; trofeoa		
EZAUGARRIAK	TXAPELA	KOLOREA	kobre kolorea; marroia edo beltza; argiagoa edo ilunagoa
		NEURRIA	diametroak 15 edo 20 zentimetro; noizbehinka 30 zentimetro
		BESTELAKO BEREZITASUNAK	azal lehorra eta askagarria
	HANKA	FORMA	lodia; behetik sabeldu samarra
		KOLOREA	marroi argia; txapelarena baino argiagoa
		NEURRIA	altuera 5-12 zentimetro edo 18 ; diametroa 3-6 zentimetro edo 9
		BESTELAKO BEREZITASUNAK	goitik sare zuria
	MAMIA	zuria eta aldagaitza beti	
	ZAPOREA	atsegina; lurrintsua	
	USAINA	zaporea bezalakoa	
HABITAT-a	pagadi, harizti edo artadietan		
ATERATZEKO SASOIA	udazkena		



Kuletoa (Amanita caesarea)

Perretxikozaleentzat, Amanita caesarea perretxiko jangarrien erregea da. Erromatarren garaitik gaur egun arte preziatuena izan da Europako nazio guztietan, hizkuntza desberdinetako izenen kopuruan ikus daitekeenez.

Hasieran arrautza forma du, erabat zuria, perretxiko guztia bolba zabal elastiko batek estaltzen baitu. Gero, hazten denean, urratu egiten da goitik eta kolore gorri-laranja txapela ikus daiteke. Txapela agerian duela baina oraindik atera gabe dagoenean, arrautza gogorraren gorringoa gogorarazten digu. Azkenik, txapel osoa atera eta gero, bere neurri, forma eta koloreagatik oso ederra den perretxikoa azaltzen da. Txapelak 20 zentimetrorainoko diametroa du. Hasier laranja du. Txapeleko azala leuna, distiratsua eta ertzean ildaskatua da. Gainalde biluzia du, garatxorik gabea, hala ere noizbehinka bolbak zati handi zuriren bat utz dezakeela kontuan hartu behar da.

Orriak hertsia dira eta urre-hori kolore polita dute.

Hanka lodia eta zilindrikoa du perretxiko honek eta oinaldean erraboila du. Goitik behearaino orrien kolorekoa da. Goialdean kolore berdineko eraztuna du. Oinaldean, berriz, bolba zabal, zuri, lodi, mintzekoa eta elastikoa dauka.

Kuletoaren mamia trinkoa eta zuria da, baina txapeleko azalaren eta hankako kanpo-geruzaren azpian horixka. Usain eta zapore atseginak ditu. Esporak zuri, ezamiloide eta eliptikoak ditu.

Udan eta udazkenean ateratzen da talde txikitik belar artean, hostozabalen basoetan, batez ere harizti, pagadi eta gaztainadietan.

Jangarri bikaina da, baina kasu egin, ez nahas Amanita muscariaekin edo kuleto faltsu pozoitsuarekin. Azken honen hanka eta orriak krema-zuriak dira, ez horiak. Gainera, oso bolba hauskorra du, ia bolbarik gabekoa dela esan daiteke, honen kondarrak garatxo moduan txapelean utzi baititu, nahiz eta batzuetan euriarengatik desagertu. Ateratzekoan ganbila da, baina gero lautua, eta kolore gorri- lekua ere desberdina du, urki eta koniferoen azpian ateratzen baita, ez hostozabalen azpian.

Perretxiko hau txikia denean, Amanita phalloides edo hiltzaile berdearekin nahas daiteke. Erromatarren garaian, bi perretxiko hauen nahasketa erabiltzen zen (erromatarrei kuletoa izugarri gustatzen zitzaizela kontuan hartuta) jende boteretsua hil eta bere lekua hartzeko. Claudio enperadoreari ere bi perretxiko hauen nahasketa eman zioten bere emazte Agripinaren aginduz, Neron agintean jartzeko. Claudiok, kuletoa bakarrik zelakoan jan zuen nahasketa. Ondoren, jandakoa bota eta gehiago jan zuen, garai hartan ohikoa zen bezala. Honek eta honez gain eman zioten beste pozoiz batek (denbora pasa eta ezer ez zitzaizela gertatzen ikusita, hiltzaile berdearen sintomak jan eta hogeitaz ordura azaltzen baitira, gutxi gorabehera) hil zuten Claudio, eta Neron agintera heltzea erraztu.



Erantzun-orria

Kuletoa (*Amanita caesarea*)

PERRETXIKOZALEEN ARTEAN DUEN OSPEA	perretxiko jangarrien erregea		
EZAUGARRIAK	TXAPELA	FORMA	hasieran ganbila, gero lautua
		KOLOREA	gorri-laranja
		NEURRIA	20 zentimetroraino
		BESTELAKO BEREZITASUNAK	hasieran arrautza forma (zuria, bola elastiko batek estalia); gero txapela pixka bat ikusi eta arrautza frijitu forma; azal leun eta distiratsua; gainalde biluzia
	HANKA	FORMA	lodia; zilindrikoa
		KOLOREA	orrien kolorekoa
		BESTELAKO BEREZITASUNAK	goialdean kolore bereko eraztuna; oinaldean bolba zuri, zabal, lodi, mintzekoa eta elastikoa
	MAMIA	trinkoa; zuria	
	ZAPOREA	atsegina	
USAINA	atsegina		
HABITAT-a	talde txikitik; hostozabalen basoetan (harizti, pagadi eta gaztainadietan)		
ATERATZEKO SASOIA	uda, udazkena		
OHAR GARRANTZITSUAK	Amanita muscariarekin nahas daiteke (aldeak: muscariaren hanka eta orriak krema-zuriak; bolba hauskorra; bolbaren kondarrak txapelean, garatxo moduan; ateratzeko leku desberdina); txikia denean hiltzaile berdearekin nahas daiteke		
BITXIKERIAK	Claudio enperadorearen heriotza eragiteko erabili zen, hiltzaile berdearekin nahastuta		



Gibelurdina (*Russula virescens*)

Honen txapela hasieran esferikoa da, gero gutxi gorabehera lautua eta, azkenean, erdialdea zapaldua du (12 zentimetroko diametroa izan dezake), eta ertza hasieran leuna du eta heldua denean pixka bat ildaskatua. Kutikula, txapeletik askagarria eta matea da, baina giro hezean ale gazteena arinki likatsua da; ale gazteetan zurixkatik krema kolorera doa eta tonu berdexkak ditu, gero pitzatu egiten da eta berde edo berde-horixkak diren xafla batzuk ikusten dira. Xafla hauek zuri-krema koloreko azpialde baten gainean daude. Perretxiko honen himenioa orri lodi, estutu, erantsi eta urkilatuez eratua dago. Beraien kolorea zuritik zuri-kremara doa eta erreflexu arrosa argiak dituzte. Hanka nahiko motza du, gogorra eta trinkoa. Honen gainazala zuria eta kizkurra da. Igeltsuaren moduan apurtzen da.

Gibelurdinaren mamia lodia eta trinkoa da. Zapore gozoa du, hurraren antzekoa. Fruta usaina du.

Burdinaren sulfatoarekin erreakzioa sortu, eta arrosa kolorea hartzen du.

Euskal Herrian espezie hau arrunta eta oso estimatua da. Uda eta udazkenean hostozabal basoen muga eta agerruneetan ateratzen da.

Biltzaile askorentzat, hau *Russula* onena da. Euskal Herrian duela mende asko dastatzen da. Espezie hau modu desberdinetan jan daiteke, gordinik entsaladan edo erdi gordinik erreta edo plantxan. Kontu handia eduki behar da, *Amanita phalloides* hilgarriarekin nahastu baitaiteke; hau ere berdea da, baina hankan bolba eta eraztuna du eta hankatik oso erraz askatzen den txapel heterogeneoa du, orriak askeak dira eta ez erantsiak; gainera, hankaren tinkotasuna zuntzekoa da eta ez igeltsu antzekoa. Kolore bereko beste antzeko *Russula* batzuk ere badaude.



Erantzun-orria


Gibelurdina (*Russula virescens*)

PERRETIXIKOZALEEN ARTEAN DUEN OSPEA	estimatuia (Euskal Herrian batez ere)		
EZAUGARRIAK	TXAPELA	FORMA	hasieran esferikoa; gero lautua; erdialdea zapaldua
		KOLOREA	ale gazteetan zurixkatik krema kolorera eta tonu berdexkak; gero pitzatu eta berde edo berde-horixkak diren xaflak
		NEURRIA	12 zentimetroraino
		BESTELAKO BEREZITASUNAK	kutikula txapeletik askagarria eta matea
	ORRIAK	lodiak, estutuak, erantsiak eta urkilatuak; kolorea zuritik zuri-kremara, erreflexu arrosak	
	HANKA	NEURRIA	motza
		KOLOREA	gainazal zuria eta kizkurra
		BESTELAKO BEREZITASUNAK	gogorra, trinkoa; igeltsuaren moduan apurtzen da
	MAMIA	lodia eta trinkoa	
	ZAPOREA	gozoa; hurraren antzekoa	
	USAINA	fruta-usaina	
HABITAT-a	hostozabal basoen muga eta agerruneetan		
ATERATZEKO SASOIA	uda, udazkena		
OHAR GARRANTZITSUAK	Hiltzaile berdearekin nahas daiteke; aldeak: hiltzaile berdeak bolba eta eraztuna ditu; txapela oso erraz bereizten da hankatik; orri askeak; hankaren tinkotasuna zuntzekoa da		
BITXIKERIAK	burdinaren sulfatoarekin erreakzioa sortu eta arrosa kolorea hartzen du; jateko, gordinik entsaladan edo erdi gordinik erreta edo plantxan		



Iraupena: 37''

Perretxiko batzuen eta beste jaki baten 7 argazki, azpian izenak dituztela.



7




Felix Iñurategiren pasadizoa


- Gaixotu zintuzten perretxiko haiek non eta noiz bildu zenituzten?
- Joe, hori ere, hori ere bilatu duzue nonbait... Ba kurtso hasiera bat zen, Iruñean ikasten ari nintzen... eta ba... e... ez dakit, uste dut e... kurtso horretan ba lehenbiziko aldiz joan behar nuela Billabara... eta ba astelehen... astelehen arratsaldea edo zen, ba bueno, gainera, ba kurtso lehenbiziko egunetan ba... edo lehenbiziko aldian, igandean ere ez gara pisura joango, ezta? Ba lagun batekin buelta bat ematen ari ginela, arratsaldean, ba perretxiko batzuk ikusi genituen eta zizak zirelakoan, eta esaten nuen nik, udazkenean ez da posible, udaberriko zizarik aurkitzea...
- Edo atzeratuak edo aurreratuak...
- Eta Jon Iñakik esaten zidan, lagunak esaten zidan, "hi, hauek zizak dituk", eta "bueno, ez egidak adarrrik jo", eta "baietz, baietz, hartu, hartu, begira ze usai daukaten" eta hartu eta ziza usaia zeukaten eta gero, bueno, aspaldian ez naiz ziza bila ibili, ez? baina banuen ohitura orduan, udaberrian zizak bilatuz gero gordinik jatekoarena, ez? Batik bat txikiak baldin baziren oso finak izaten dira. Eta, jo, probatu nituen eta, joe, zizak ziren. Bildu genituen, etxera eraman, amari, eta amak ere, ba perretxiko eta asko pasatu du esku artean eta, jo, hola, lehenbiziko bistazoan ba, baietz, zizak zirela baina berak badaezpada ere ba ez zituela jango eta, bueno, ba "geuk jango ditugu". Demaseko tortilla egin zigun, erdi bana jan genuen eta bueno, bera Arrasatera joan zen eta ni Billabara. Billabako jaiak ziren gainera. Eta iritsi bezain laster, e, txahala bota nuen eta berehala piztu zitzaidan bonbila: "joe, perretxikoak". Deitu nion etxera Jon Iñakiri eta "hi, hiri pasatu al zaik zerbait hola arraroa?" eta "bueno... ni ja zentroan egon nauk eta kriston garbiketak egin zizkidatek eta, bueno, nik ja pasatu diat eta..." Ba, esan nuen, bueno ba neuk ere bota dut eta pasako zen. Joe, "pasako zen!" gauean ba UBIn ingresatu ninduten eta gero astebete pasa behar izan nuen ospitalean nahiko... nahiko ikutua, ez?
- Harrezkero perretxikorik jan duzu?
- Bai, egon nintzen urte batzuk ba ikusi ere ezin nituela egin, ez? Baina bueno, poliki-poliki berriz konfiantza hartu egiten da.


Felix Iñurrategiren pasadizoaren aldagaiak

<p>1. ZER GERTATUKO ZEN KULETOA ZELA PENTSATU ETA AMANITA MUSCARIA HARTU IZAN BALUTE?</p>	<p>2. ZER GERTATUKO ZEN MENDI BUELTA BAT EMATEN EGON BEHARREAN, MENDIRA ASTEBETERAKO KANPINDENDA HARTUTA JOAN IZAN BALIRA?</p>
<p>3. ZER GERTATUKO ZEN AMAK TORTILLA HARTU ETA BADAEZPADA ERE TXAKURRARI EMAN IZAN BALIO?</p>	<p>4. ZER GERTATUKO ZEN ETXERA ERAMAN BEHARREAN, LEHENAGO MIKOLOGIA ELKARTE BATETIK PASATU IZAN BALIRA?</p>
<p>5. ZER GERTATUKO ZEN TORTILLA BI LAGUNEK JAN BEHARREAN KUADRILLA OSO BATEK JAN IZAN BALU ETA GERO BILLABAKO JAIETARA JOAN?</p>	<p>6. ZER GERTATUKO ZEN ALKOHOLAREKIN NAHASTU EZIN DIREN PERRETXIKOAK JAN IZAN BALITUZTE, EZER JAKIN GABE, ETA TORTILLAREKIN BATERA ARDOA EDAN BALUTE?</p>

Perretxikozalearen jantzi eta tresnen irudiak







Erantzun-orria

Perretxiko-biltze segurua eta eraginkorra

Hasteko, ongi prestaturik joatea komeni da: mendiko botak, makila, zumezko otzara, paperezko kartazalak (plastikoak hartzidura eragiten du) eta basoko labanatzko bat. Interesgarria izaten da (oso adituentzat) poltsikoko lupa eta oharrak idazteko arkatza eta papera eramatea: habitata, herria, data, izena... idazteko.

1. Mikologia zientzia da. Eta ikasi egin daiteke. Mikologiari buruz zenbat eta liburu gehiago irakurri, erakusketa eta hitzaldietara zenbat eta gehiago joan eta egiazko zaleak - ez harrapari soilak - inguruan izanez gero, orduan eta gehiago gozatuko dugu perretxikoak biltzen, eta pozoitzeko arrisku gutxiago izango da. Edozein modutan, perretxiko kontuetan hobe da ezjakina eta zuhurra izatea, "akademikoa" eta ausarta baino.

2. Segurtasun neurri gisa, perretxikoak osorik biltzea komeni izaten da, lur apur batekin, lurpean zatirik gera ez dadin. Horrela, osorik aztertu ahal izango ditugu. Eta gida-liburukoekin konparatu (atal bakoitzari begiratuta). Hala ere, jateko direnean eta ziurtasun osoa dugunean, hobe da perretxikoak hankatik moztea. Osorik hartzen denean, ez da lurra marraskatu behar, bestela mizelioa hondatu egin baitaiteke.

3. Perretxiko heldu eta osasuntsuak baino ez dira bildu behar. Zahar geratu direnak edo ustelduta daudenak biltzen ditugunean, gero etxean zaborretara botatzen ditugu. Basoan utziz gero, ordea, esporak bota ditzakete bertan, eta modu honetan perretxiko berriak jaio, edo behintzat beste izaki batzuen jana izango dira.

4. Ez dira ezagutzen ez ditugun edo pozoitsuak diren perretxikoak zapaldu edo hondatu behar. Perretxikoak izaki biziak dira, eta bakoitzak bere funtzioa dauka naturan. Horrez gain, gogoratu gure fisiologia ez dela beste animalia batzuen bezalakoa, eta guretzat kaltegarria suerta daitekeen perretxikoa beste animalia batentzat jangarria izan daitekeela. Hortaz, kontuan

hartu ez dela egia animaliek jandako perretxikoak pozoitsuak ez direnik.

6. Bildu perretxikoak paperezko poltsetan, bakoitza bere izenarekin. Perretxikoak bidean honda ez daitezten, hosto, goroldio edo belarretan bil daitezke, kolpeak arintzeko.

7. Etxera iristean, jatekoak eta gorde edo ikertzekoak bereiztea izango da lehen lana. Zalantzarik gabe, perretxiko bat ondo identifikatzeko egokiena Mikologia elkarte batera joatea da, edota bazkide egitea. Horrelako leku batera joaten bazara, gogoratu kontsumitu behar dituzun perretxiko guztiak eraman behar dituzula, ez ale batzuk bakarrik. Perretxikoak jangarriak diren ala ez esaten dizuna Mikologia elkarteren batekoa ez bada, ziurtatu badakiela zertaz hitz egiten ari den, asmo oneko jende asko egonik ere, umiltasun falta ere ugaria baita. Aholkuak norberak ematen dituen aldirako ere balio du esandakoak.

8. Jateko badira, modu erraz batean prestatzea izaten da egokiena, hobeto dastatzen baita perretxikoen gustua. Gehienetan hankak bota eta txapelak bakarrik jaten dira: zatitu eta zartaginean, labean edo kazolan jarri oliba olio edo gurin apur bat eta gatz botata. Sutan, minutu batzuek eragin. Beste aukera bat: perretxiko edo onddoen nahaskia egin edo arrain eta haragien betegarri gisa erabiltzea. Perretxikoen gastronomia aukerak ez dute mugarik. Perretxikoz egindako izozki bikain bat ere ba omen da...

9. Perretxikoak onak edo txarrak diren jakiteko modu bakarra, perretxikoen ezaugarri morfologikoei erreparatzea da. Jateko biltzen baditugu, nahikoa da forma, kolorea, hanka, orriak, eraztunik duen edo ez, usaina, zaporea... aztertzea. Badaude baztertu behar ditugun arau falsu batzuk, lehenago aipatutakoez gain:

- Ez da egia leku berean ateratzen diren perretxikoak beti jangarriak direnik.
- Ez da egia mozteko orduan kolorez aldatzen diren perretxiko guztiak pozoitsuak

direnik. Perretxiko hilgarri batzuk ez dute kolorea aldatzen, eta jangarri batzuk, ordea, bai.

- Ez da egia perretxikoak gatzunetan edo ozpinetan jarriz gero toxikotasuna galtzen dutenik.

10. Pozoituz gero, lehenbizi osasun-zerbitzuekin jarri behar da harremanetan.

Sendagilea etorri baino lehen edo larrialdi-zerbitzuetara eraman bitartean, jan duena botarazteko, pozoituari ur gazia eman dakiok. Osasun-zerbitzuetakoei honako datu hauek eman behar zaizkie:

- Perretxikoak noiz bildutakoak diren eta zer ordutan jan diren.

- Jandako espezieen datuak (izena, kolorea, usaina, bildu diren tokia...).

- Jan denetik lehen sintomak azaldu diren arte zenbat denbora iragan den.

- Perretxikoak nola prestatu diren.

- Perretxiko berdinak zenbat jendeke jan dituen eta zenbat pozoitu diren.

- Prestatu ez diren aleak, zaborretara bota direnak, jan gabe geratu dena, gonbitoak, ... eraman behar zaizkie.

Edozelan ere, perretxikotan jarduteko asmotan direnentzat pozoitze-arriskua saihesteko aholku bakarra nahikoa izan daiteke: ez hartu zalantza sortzen duen perretxikorik.